



17/2003 GOMENDIOA, EKAINAREN 10EKOA, IRUNGO UDALARI EGINA, DATORREN EKAINAREN 30EAN SAN MARTZIALEKO UDAL ALARDEAREN OSPAKIZUNA IRAGAR DEZAN, OSPAKIZUN HORI ANTOLATU NAHI DUENARI EZINBESTEKO BALDINTZA HAU JARRIZ: PERTSONA GUZTIEN ARTEKO BERDINTASUN PRINTZIPIOA ERRESPETA DEZALA, ETA, BEREZIKI, EMAKUMEEI BEREN HERRIKIDE DIREN GIZONEZKOEN BALDINTZA BERETAN OSPAKIZUNEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA ONAR DIEZAIELA.

Aurrekariak

1. Plataforma ciudadana por un Alarde para todos y todas delakoa Arartekoarekin harremanetan jarri zen, honako hau azaltzeko: Irungo pertsona talde batek udal alarde bat iragartzeko eskatu zion udal horri, eta bere burua eskaini zuen hori antolatzeko. Halaber, kexagileek gure esku-hartzea eskatu zuten, ospakizun horretan parte hartzeko duten eskubidea babesteko.

Erakunde hau 1996 urteaz geroztik ahalegintzen ari da Irungo emakumeen eskubide hori babesten, eta, beraz, behin eta berriz adierazten ari da udal horrek berdintasunezko eta pertsona ororen oinarrizko eskubideak errespetatuko dituen Alarde baten ospakizuna sustatu behar duela. Hori dela-eta, zugana jotzen dugu, zenbait gai azaltzeko eta zure iritzia jakiteko. Jarraian laburtuko ditugu gure argudioak.

a) Jurisprudentiako doktrina argi eta sendo batek onartu du Irungo emakumeek badutela Alardean soldadu gisa parte hartzeko eskubidea, eta, era berean, adierazi du emakumeak herriko festa horretatik kanpo uzteak -edo, gauza bera baita, haien esku-hartzea kantinera izatera mugatzeak- hautsi egiten duela tratu bera jasotzeko oinarrizko eskubidea. Beste erabaki batzuen artean, Auzitegi Gorenaren 2002-09-19ko Epaia aipatu behar da, duen garrantziagatik, izan ere, erabat eta behin betiko berretsi ditu Euskal Herriko Auzitegi Gorenak erabilitako arrazoiak (1998-01-17ko Epaia), emakumeek Alardean beren herrikide diren gizonezkoen baldintza beretan parte hartzeko eskubidea ezartzeko.

Epailen erabaki horiek sendoak diren arren, azken bi urteotan Alardearen antolaketa pertsona partikularren esku utzi denez gero, emakumeei galarazi egin zaie parte hartzea, eta, beraz, beren herriko ospakizun nagusitik kanpo geratu dira, emakume izate hutsagatik.



b) Benetako egoera hori izanik, bere indar osoa hartzen du Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluan agertzen den aginduak; horren arabera, herri-agintari guztiek benetako berdintasuna sustatu behar dute pertsona ororen artean. Aztertzen ari garen kasuan, agindu horrek jarduera aktiboa exijitzen dio Irungo udalari, generoagatik gertatzen ari den bereizkeria-egoera indargabetu dezan. Eta, dirudienez, biztanle guztien berdintasunezko tratua bermatuko duen Alarde ofiziala ospatuz bakarrik lor daiteke hori.

Paradoxikoa badirudi ere, ondorio berbera ateratzen da Auzitegi Nagusiaren 2002-06-21eko Epaia aztertuz ere: jakina denez, epai horren arabera, udalak ohiko Alardearen antolaketa esku pribatuetan uzteak ez du urratzen berdintasun eskubidea. Hona hemen erabaki horren oinarritzko arrazoia: Irunen bizi diren emakumeak ospakizun hartatik kanpo geratzen badira ere, badute beraiek nahi duten moduan desfilatzeko aukera udalak sustaturiko Alarde batean. Salatutako udalak berak alegatzen du ofiziala izango den beste Alarde bat ospatzeko aukera dagoela, eta hori antolatzen lagunduko lukeela. Horrexegatik du iritzi hori Auzitegiak.

c) Egiaz, Auzitegi Nagusiaren 1998-01-17ko Epaia betetze aldera, udal horrek Alarde misto eta ofiziala antolatu izan du, herritar guztientzako. Halakorik ez da gertatu, ordea, azken bi urteotan, ospakizun hori sustatzen zutenek ez baitute eskatu horretarako deialdia egitea. Hala ere, berdintasunezko Alardearen aldekoek hura ez antolatzeko erabakia hartu zutenean, oinarri juridiko sendo bat zuten.

Halaxe da, Irungo 1. Auzialdiko 3. Epaitegiak 1999-05-20an emandako Epaia garrantzitsuan -Gipuzkoako Probintzi Auzitegiak 2000-12-29an berronetsian-, zera argitu zuen: nahiz eta pribatua antolaturiko ospakizuna izan, ez zeukala jurisdikzio-eskumenik, baina ospakizun horren kudeaketa edonork eginda ere, inoiz ezin zitekeela izan sexuagatik inor baztertzeko ekintza bat. Adierazpen hori abiapuntu hartuta, eta kontuan izanik bi Alarde aldi berean egitea -bata ofiziala eta bestea pribatua- herri-festa bakarra, irekia eta denek parte hartzeko modukoa lortzeko bide bat besterik ez zela izan, berdintasunezko ospakizunaren aldekoek gehiengoaren Alardean parte hartzea erabaki zuten, uste baitzuten jada ezin zirela Alarde horretatik kanpo utzi eskopetari gisa desfilatu nahi zuten emakumeak.



Helburu hori lortu ez denez gero, dirudienez, esperientziak erakusten du bi ospakizun ezberdin egitea dela, une honetan, emakumeek festan parte hartzeko bide bakarra. Hori egiaztatu denez, eta herriko pertsona guztien artean benetako berdintasuna sustatu behar duenez gero, udalak ezinbestean bultzatu behar du Irungo emakumeek beren herrikide diren gizonezkoek bezalaxe parte hartzea ahalbidetuko duen Alarde baten ospakizuna.

d) Erakunde hau ez da udalak betebehar hori duela uste duen bakarra. Eusko Legebiltzarrak behin baino gehiagotan adierazi izan du komenigarria dela epe laburrean inor diskriminatuko ez duen alarde bat izatea, ofiziala eta udalak antolatua, oraingo gatazka sortu baino lehen egiten zen moduan.

Gainera, udal horrexek ofizialki adierazi du, bere ustez, udal Alarde bat sustatzea legeria zorrozki betetzea dela, eta ez dela bere nahiaren arabera erabaki dezakeen zerbait, baizik eta talderen batek hala eskatzearen baitan dagoela (ikus, adibidez, Udalbatzaren 2002-05-29ko Erabakia).

e) Bestalde, agerian jarri behar da Alardea herri horretako ospakizun nagusia dela eta historiazko eta kulturazko bere idiosinkrasiaren adierazgarri onena. Alabaina, festa hori pertsona partikularren talde batek kudeatutako ikuskizun bihurtu da, eta haiek erabakitzen dute herritarretatik zeintzuk parte har dezaketen ospakizunean eta zeintzuk ez.

Pribatizazio horrek, bere horretan hartuta -eta sortzen duen bereizkeria alde batera utzita-, esan nahi du udalak ez dituela betetzen bere zereginak. Egia da -eta horixe adierazi du jurisprudentziak- administrazio horrek legez ez daukala zertan arduratu Irungo festetako ikuskizun nagusi hori gauzatzeaz eta antzezteaz, baina inork ez dio hori eskatzen. Berdintasunezko Alardearen aldekoek zera eskatzen dute: udalak iragar eta finantza dezala ospakizun hori, zeina, beti gertatu den legez, Alardearen Batzordeak berak antolatu eta kudeatzen duen, eta konpainietako kideek gauzatzen duten.

Bestela jokatzeko, hau da, udal agintaritzak herriko festetan duen buruzagigoa bere gain ez hartzea, izatez, festak pribatizatzea da, edo, beste modu batean esanda, pertsona talde pribatu bati ahalmena ematea beren begiko ez diren herritar edo gizarte taldeak ospakizunetik kanpo uzteko. Erakunde honen ikuspuntutik, jokaera horrek demokrazian atzera



egitea dakar, egiaz parte hartzekoa eta berdintasunezkoa den gizarteko eta kulturako alorretako batean.

2. Gogoeta horiek udalari helarazi ondoren, 1.221 zenbakiko Erabakia bidali digu erantzun gisa. Erabaki horren bidez, ez da onartzen 2003 urterako udal Alardea iragartzeko eskaera. Bere azken arrazoibidean honako hau argitzen du: 2003-05-13ko txosten juridikoan -erabakiaren oinarria- berdintasunezko Alardearen sustatzaileen eskaera bakarrik aztertu bazen ere, hango arrazoiek gure idazkian azaldutako argudioei erantzuteko ere balio dezaketela. Erantzun hori hiru puntutan labur daiteke:

- a) Irungo udalak legez ez dauka Alardeko ezein ekintza antolatzeko obligaziorik. Jarrera hori sendotzeko, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 99-10-07ko Epaian ezarritako jurisprudenzia-doktrinaren interpretazio bat egiten du: ikuskizun hori antolatzea ez litzateke sartuko nahitaez bete beharreko "gutxienezko obligazioen" artean -Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikuluan aipatzen dira horiek-.

Oinarri juridiko horren aurka, talde eskatzaileak ez omen du toki jaurbideari buruzko legeriaren xedapenik aipatu bere nahia oinarritzeko, baizik eta alegatzen omen du Alardearen indarreko Ordenantzak agintzen diola udalari ospakizun hori sustatzea. Administrazio horrek ez du hori onartzen.

- b) Era berean, Alkatzaren erabakian adierazten denez, emakumeek berdintasunez parte hartzeko Alardea antolatu nahi duten pertsonak ospakizun hori modu "pribatuan" egiteko baimena eska eta lor lezakete, ohiko Alardearen antolatzaileek egin duten bezala.

Beraz, udalaren esanean, "cualquiera tiene la libertad para organizar y obtener la autorización de otros actos de Alarde configurados de modo distinto"; horregatik, ez da bidezkoa Konstituzioaren 9.2 artikulua aipatzea.

- c) Erakunde honek "Alardea antolatzea"z egiten duen interpretazioaren kontra -gure ustez, kexagileek laguntza logistikoa eta diruzkoa bakarrik eskatu diote udalari, beren gain hartzen baitute ikuskizuna egiaz gauzatzeko ardura-, udalak zera uste du: "se limita a pedir un Alarde municipal, y éste consiste en un acto de Alarde de titularidad y



organización del Ayuntamiento". Bestela esanda, dirudienez, administrazio horrek uste du berdintasunezko Alardearen aldekoek eskatzen dioten partaidetza Arartekoak azaldutakoa baino askoz handiagoa dela.

Gogoetak

1. Aurrekarietan adierazi dugunez, udal horrek Alardea antolatzeko obligaziorik ez duela dio, eta hori oinarritzeko, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko Epaian landu ziren arrazoi juridikoak erabiltzen ditu. Erabaki haren bidez erantzun zitzaion Juana Mugarrietakoa elkarteak Hondarribiko udalaren kontra jarri zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoari, udalak ukatu egin baitzion irailaren 8an Alardea antolatzea.

Horrela, epaiaren zati handi batean "Alardea antolatzea"k zer esan nahi duen argitzen ahalegintzen da. Haatik, udalak epailearen arrazoiez egiten duten interpretazioa ez zaigu iruditzen orain azaldutako kasuan erabil daitekeenik. Baieztapen hori oinarritzearren, komeni da epaiaren hirugarren oinarri juridikoa ia osorik transkribatzea. Honela dio:

"Desde nuestro punto de vista cabe hablar de «organización» del Alarde de Hondarribia en dos sentidos distintos.

En una primera faceta -que no se aborda particularmente por las partes, aunque comporta notables consecuencias-, el Alarde forma parte de un entramado de festividades patronales que se desarrollan a comienzos del mes de septiembre, y que, con muy alta probabilidad, son aprobadas, programadas y, total o parcialmente, financiadas desde el ámbito municipal. Desde este punto de vista el Alarde es público y, como ocurre con otros sectores de la actividad administrativa en que se emplea la técnica de la autorización (como, por ejemplo, el urbanístico), es innecesario que las actividades iniciadas o promovidas por las entidades locales queden sujetas a tal intervención administrativa previa autorizatoria, cuando ésta les viene legalmente atribuida. Puede decirse así que mientras el indicado Alarde forme parte de ese elenco de celebraciones convocado desde el marco de la acción municipal en materia de cultura popular, ocupación del tiempo libre, etc., [art. 25.2 m) LBRL], no será preciso que entidad o agrupación social alguna que venga encargada por tradición, costumbre o incluso, imperativos del contenido mismo de la celebración o acontecimiento, a poner en práctica la manifestación cultural cívica o cívico-religiosa de que se trate (y ya se denomine cofradía, peña, junta, asociación, etc.) se someta al régimen autorizatorio de la L 4/1995, de 10 Nov.,



que en su art. 16.3 a) faculta a los órganos competentes del municipio para conceder la autorización relativa, entre otros, a los espectáculos o actividades recreativas que se celebren en vías públicas o espacios abiertos de uso público. Ahora bien, el carácter implícito de esa autorización no podrá excluir, sino que presupondrá en todo caso, el sometimiento del acto a los estándares de seguridad y "minimum" ético-jurídico que se especifican en el art. 18 de dicho texto legal, y que comprenden la exclusión de toda conculcación de los derechos fundamentales de las personas.

Igualmente se deduce de lo anterior que toda valoración que la corporación municipal efectúe sobre las tradiciones y características del acto, selección de personas o grupos llamados a organizarlo, etc., tales como las que se hacen en la resolución recurrida o se vierten al contestar la demanda, implica necesariamente este tipo de caracterización pública del acto. Si por el contrario, el Alarde fuese de iniciativa meramente privada, habría de resolver el Ayuntamiento las solicitudes de autorización al respecto con absoluto rigor administrativo y sin poderse permitir la cooptación en favor de uno de los organizadores en pugna -arts. 2 y 6.1 RSCL de 17 Jun. 1955-.

(...)

Desde otro punto de vista, 'organizar' el Alarde equivaldría a asumir la ejecución de su propia puesta en escena pública, diseñando las compañías, seleccionando a los partícipes, u ordenar normativamente sus actuaciones, indumentarias, procedimientos, etc. Y desde este segundo prisma o enfoque - que es el que parece asumir la pretensión en este proceso-, no es jurídicamente viable sostener que se está en presencia de una obligación municipal 'ex lege', pues el art. 25.2 LBRL en ninguno de sus apartados atribuye competencias concretas ni crea obligaciones, más allá de describir ámbitos de necesaria atribución de las mismas -TC S 214/1989, de 21 Dic.-, sino que es el art. 26 el que articula un listado de tales competencias como, 'obligaciones mínimas' de prestación imperativa, y las somete a una verdadera acción pública de exigencia por parte de los vecinos fundada en el derecho a su prestación -art. 18.1 g)-. De otra parte, en la legislación sectorial que se cita -L 7/1990, de 3 Jul., de patrimonio cultural vasco-, existen referencias a las atribuciones locales acerca, de su 'misión de realzar y dar a conocer el valor cultural de los bienes integrantes del patrimonio histórico del pueblo vasco que radiquen en su término municipal', y sin entrar a discernir si esa es verdaderamente la calificación que realmente merece el Alarde en cuestión, no se puede extraer de ellos que exista una verdadera facultad o derecho de los vecinos para imponer



la prestación municipal directa de tal actividad o servicio cultural." (letra lodia guk erantsi diogu).

Laburbilduz, Auzitegi Nagusiak Alardea antolatzeke bi modu ezberdin aztertzen ditu: lehenengo moduan, udalak ospakizuna "programatu" egiten du -alegia, iragarri, sustatu- eta, eskuarki, diruz laguntzen du. Lehen aukera horren barruan, aldi berean, bi jarduera-mota bereizten dira, programatze-lana udalak bere kabuz hasia den ala ez kontuan izanik: ekimena udalarena izan bada, Alardea egiteko erakunde arduradunari deitzen dio eta, orduan, baimena inplizitua da; aldiz, ekimen pribatua bada, administrazioaren baimena behar du. Bigarren moduan, antolatze hitzak gauzatzea, burutzea, materialki "antzeztea" esan nahi du.

Orduan, auzitegiak -normala denez- biztanleen balizko eskaera horren kontra adierazi du, hain zuzen, udalak ez daukala Alardea "egiteko" inolako obligatorik, edo epaian erabilitako hitzak hona ekarriz, ezin dela exijitu "udalak jarduera hori zuzenean gauzatzea". Ondorio horrekin guztiz bat gatoz, eta, berriro diogu, ezin da ezarri aztertzen ari garen kasuan, bada, kexagileen idazkian hitzez hitz adierazten denez, haiek inoiz ez diote eskatu udalari Alardea gauzatzeko, ezta antolatzeke ere. Hauxe baino ez zuten eskatu: "que por la autoridad municipal competente se convoque para el próximo día 30 de junio la celebración del ALARDE MUNICIPAL, a cuya organización nos brindamos".

Alegia, Alarde mistoaren aldekoen eskaera, jakina, "antolatu" hitzaz epaian egiten den lehen interpretazioaren barruan sartzen da erdiz erdi, eta interpretazio horrek aldi berean ematen dituen bi aukerez baliatuz, udalari eskatzen diote aurrea har dezala eta deialdi bat egin dezala. Horixe esan nahi du "antolatu" hitzak eskaera horretan, ez besterik.

Aztertu dugun epaian, inon ez da legez kanpokotzat jotzen Alardearen "udal antolaketa", zentzu horretan ulertuta. Areago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko Legearen 25.2.m) artikuluan ezarritako udal eskumenen barruan sartzen dela adierazi ondoren, epaiaren gainontzeko zatian, interpretazio haren barruan dauden bi aukerak aztertzen ditu -ekimen publikoa eta ekimen pribatua-, erabat baztertzen baitu "antolatu" aditzaren beste interpretazioa, Alardea materialki burutzearen sinonimoa. Azalpen hori argi ikusten da epaiaren bosgarren oinarrian ateratako ondorioan:



"Aunque a criterio de esta Sala todos los indicios presentes hacen suponer que el Alarde de Hondarribia de 8 septiembre de 1998 presenta todavía, como los anteriores, el carácter público derivado de su promoción última por el municipio, pues no se explicaría en otro caso ninguna otra implicación municipal que no fuese la de responder a las solicitudes de autorización que los particulares -mandos o no del Alarde-, le dirigiesen, sin poderse pronunciar sobre preferencias o modelos de organización de dicho acontecimiento popular y participativo, como las que en la resolución combatida se desarrollan, y sin poder ocupar tampoco papel institucional alguno en la dinámica reglamentaria de la organización (pues se trataría de una libertad de la sociedad civil que no admitiría dirigismos), tanto en ese caso, como en el caso hipotético de que realmente la celebración del Alarde estuviese hoy en manos de los vecinos y sus agrupaciones más o menos espontáneas con personalidad o sin ella, se vería compelido el municipio a ejercitar facultades de policía administrativa de los derechos y de control sobre la igualdad en la participación de los vecinos." (letra lodia guk erantsi diogu).

Nabarmena da elkarri kontrajartzen zaizkiola "antolatu" aditzaren lehen interpretazioak izan ditzakeen bi aukerak -ekimen publikoa eta pribatua-, eta ondorio hau ateratzen da: ikuskizuna edonolakoa izanik ere, errespetatu egin behar dela emakumeek berdintasunez parte hartzeko duten eskubidea.

Azken batean, azterturiko epaiaz udal horrek egin duen interpretazioa partziala dela ondorioztatu behar da, izan ere, Auzitegi Nagusiak udalak Alardea antolatzeko obligaziorik ez duela dioenean, "antolatu" hitzaren esanahi berezi bati dagokio. Kexagileek udalari eskatu diotena eta hitzaren esanahi hori bat ez datozenez, kasu honetan ez dago erabiltzerik jurisprudenzia-doktrina hori.

2. Ez da egia, hortaz, epaitegiek udalak Alardea sustatzeko obligaziorik ez duela ezarri dutenik, bada zuzeneko antolaketa mota berezi bat bakarrik baztertu dute, baina argitu dute festaren ospakizunean badirela udalaren eskumeneko beste kontu batzuk. Dena den, onar liteke udalak eskumenak dituela onartzetik ez dela zuzenean eta berehala sortzen udalak jarduteko duen obligazioa. Ikusi dugunez, udalak festaren ospakizuna era aktiboan ahalbidetu dezake -hori sustatuz, festa antola dezaketenei deituz, e.a.- edo era pasibo samarrean, erakunde pribatu batek proposaturiko ikuskizuna egiteko baimena emanaz, besterik gabe. Aztertu dugun jurisprudenzia bi aukerak onartzen ditu, eta, modu abstraktuan, ez du bietako bat hobesten. Beraz, inplizituki pentsa liteke, hasiera batean, udalak ez daukala aurrea hartzeko obligaziorik, eta herritarrek proposamena egin arte itxaron dezakeela.



Hala ere, doktrina horrek erantzunik gabe uzten ditu orain arte azaldu ez diren bi galdera. Alde batetik, ez du esaten zer gertatzen den pertsona talde batek, arrazoietan oinarrituz, alkateari aurrea hartzeko eta Alarde mota jakin baten ospakizuna bultzatzeko eskatzen dionean, hartara, berdintasunerako eskubidea errespetatzen dadin. Beste alde batetik, jurisprudentziak azaltzen dituen arrazoiak bikainak dira maila abstraktuan edo maila teoriko hutsean, baina koherentzia gal dezakete historikoki zehaztuta dauden gertakari jakin batzuei aplikatzean. Eta horixe gertatzen da, hain justu, Irunen.

Azken bi urteotan, emakumeek ez dute parte hartzerik izan, eskopetari gisa, modu pribatuan antolatuta den Alardean; izatez, festatik kanpo utzi dituzte. Benetako egoera horretan, indar osoz sartzen da jokoan gure legeriako bi arau nagusien -Konstituzioa eta Autonomia Estatutua- 9.2 artikuluan ezarritako agindua. Begi-bistakoa da udal Alardetik ez izatea eragozpen bat dela ikuskizun publiko horretan parte hartu nahi duten emakumeen benetako berdintasuna lortzeko, emakume izate hutsagatik baztertzen baitituzte. Herri-agintari guztiek, baina batez ere udal horrek eragozpen hori kentzeko obligazioa dute, berariazko obligazio saihestezina gainera, eragozpen horrek herriko festa nagusian emakumeei berdintasunez parte hartzea galarazten dielako.

Beraz, nahiz eta toki jaurbidearen araudian udal horrek herritar guztientzako Alarde bat bultzatu behar duela espresuki ez adierazi, eta nahiz eta jurisprudentziak betebeharrak hori esplizituki ez esan, obligazio hori indarrean dago, zalantzarik gabe. Obligazioa Konstituziotik dator zuzen-zuzenean, bilakaera historikoak eta egiaz gertatzen diren zertzeladak arauan ezarritako agindua zehaztera behartzen baitute: gaur egun, Irunen, emakumeek eta gizonek gizarte eta kulturazko ekintzetan berdintasunez parte hartuko badute, ezinbestekoa da Alarde mistoa ospatzea; orduan, udal agintaritzak Alarde hori bultzatu beharra dauka eta, horrela, emakumeek pairatzen duten bereizkeria eragozti. Beste modu batera esanda, oraingo egoeran, utzikieriazko jarrera izateak Konstituzioan ezarritako agindua ez betetzea ekarriko luke berekin.

Egiaztaturiko betebeharrak hori ezin da saihestu honako hau esanez -udalak bere erabakian egiten duen bezala (6. arrazoibidea, 4. paragrafoa): kexa azaldu duen taldeak "tiene la libertad para organizar y obtener la autorización de otros actos de Alarde configurados de modo distinto y, entre ellos, con arreglo al llamado modo 'igualitario' de participación". Izatez, ez dago halako aukerarik; talde txiki batek ezin dio inolaz ere aurre egin Alardea bezalako ikuskizun bat abiarazteak dakarren diru-kostuari, eta halakoxea da emakumeen parte-



hartzearen aldekoek osatzen duten taldea. Eta zertzelada hori aintzat hartzen ez bada, baliorik gabe uzten da Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua edukia.

Izan ere, udal horrek sarritan aipaturiko "Alardea antolatzeke erabateko askatasun eta berdintasun" horiek askatasun eta berdintasun formalak besterik ez dira. Ustezko "legearen aurreko berdintasuna" azpimarratzen da, pertsonen eta gizarte taldeen baldintza materialen arteko aldeak saihesteko. Bereizkeria ez pairatzeko eskubidearen interpretazio hori Zuzenbideko Estatuaren antzinako interpretazio liberal eta esku hartzearen zale ez zenari dagokio, baina onartezina da bere burua sozial eta demokratiko izendatzen duen sistema batean. Are gehiago, administrazio horrek proposatzen duen interpretazioak alferrikako bihurtzen du 9.2 artikulua, haren indar edo ahalmen guztia deuseztatzen du, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan adierazitako berdintasun printzipioaren barruan sartzen duelako.

Irungo udalak beharrezko baldintzak sustatu behar ditu herritar guztien arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin, eta betebeharrak ez da betetzen ekimen pribatu batek proposatzen dion "edozein ikuskizun" baimentzeko prest egonda bakarrik, hasierako baldintzak kontuan hartu gabe. Baina, diruzko eta antolaketazko ahalmenean alde hori egongo ez balitz ere, udal horrek ezin du berdinean jokatu generoagatik biztanleen zati bat baztertzeko den ospakizun batean eta pertsona guztien eskubideak errespetatzen diren beste ospakizun batean. Legeari oinarritutako printzipioak ezarriko badira, ezinbestekoa da ekintza positibozko politika bat erabiltzea, gizonek eta emakumeek norbanakoen eskubideak gauzatzean erabateko berdintasuna izan dezaten. Eskubide horien artean dago, besteak beste, herri horretako gizarte, kultura eta aisialdiko bizitzan parte hartzeke eskubidea.

Esku artean dugun kasuan, benetako berdintasuna sustatu ahal izateko, udalak San Martzialeko Alarde bat iragarri behar du, bertan eskopetari gisa parte hartu nahi duten emakumeak baztertuko ez dituen.

3. Agerian jarri beharra dago, ezinbestean, oso mugatua dela talde kexagileak eta erakunde honek -haren alde eginez- udalari egin dioten eskaera. Lehenago esan dugunez, berdintasunezko festaren aldekoek udal Alardearen ospakizuna iragarri zezala eskatu zioten, eta hori antolatzeke eskaini zuten beren burua. Horrela bada, ez da guztiz zuzena alkatetzaren erabakian adierazitakoa, honako hau eskatu dela baitio: "un acto de Alarde de titularidad y organización del Ayuntamiento". Kexagileek udalari nolabaiteko ekimena edo aurrea hartzea eskatzen diote, eta ohiko Alardearen ospakizunak duen izaera pribatuaren



aurrean, ospakizun publikoa galdatzen dute, udal agintaritzak sustatua eta udala titular edo buru duela.

Hori guztia egia da, baina ez dute eskatu udalak Alardea antola dezala, ez behintzat udalak, udal obligazio bat tartean dagoela ukatzeko, "antolatu" hitzari eman dion adieran. Ez dugu kontu hori berriz aipatuko -nahikoa garatu dugu 1. puntuan-, baina komeni da argi uztea kexagileek inoiz ez diotela administrazio horri eskatu Alardea gauza edo antzez dezala, baizik eta, soil-soilik, susta dezala, eta horretarako, deialdi bat egin dezala eta antolatzaileen esku jar ditzala beharrezko baliabideak eta diru-bideak.

Horixe esan genuen joan de maiatzaren 7ko gure idazkian: "nadie exige a esa corporación que organice el Alarde en el sentido de llevarlo a cabo, se solicita exclusivamente su apoyo, puesto que los partidarios del Alarde igualitario están dispuestos a organizarlo y ponerlo en práctica". Izan ere, egiaz, hori egin du udalak azken bi urteotan, Alarde ofiziala burutu denean. Ildo horretan, gogorarazi behar dugu udal horrek Alardean esku-hartze nabarmena izan zuela emakumeek festan berdintasunez parte hartzea eskatu zuten arte. Horrela, adibidez, dagokion ordenantzaren arabera, udalak izendatzen zuen Jenerala; alkatea Alardearen Batzordeburu zen; Abiadaren ondoren, San Joan plazan, alkateak herriaren bandera ematen zion konpainia bati, eta gero udalaren partaide guztiek laguntzen zuten Alardea, e.a. Hala ere, paradoxikoki, esku-hartze hori ahuldu egin da, ia desagertzeraino ahuldu ere, emakumeek -eskubide hori epaitegietan aitortu ostean- parte hartu duten ospakizunetan.

Egintzen bilakaera hori onartuta -kexagileek negargarritzat jotzen dute eta etorkizunean aldatzea espero dute-, berdintasunezko Alardearen aldekoek gauza bakarra eskatzen diote udalean dituzten ordezkari: 1998tik 2000 arte egiten dutena egin dezatela, hau da, Irungo festetako ekintza nagusiaren ospakizuna iragarri, jantziak eta beharrezko tresnak utzi, eta festa finantzatu.

Bestalde, gaiaren mamiaren funtsezko alderdi batzuk ere aipatu behar ditugu, nahiz eta, aurrekoa onartuz gero, alferrikako bihurtuko litzatekeen honelako edozein gogoeta.

Herrizaingo Sailari bidali dizkiogun idazkietan zera azpimarratu dugu: derrigorrezko aseguru bazela eta indarrean zegoela egiaztatzen zuen agiria ez aurkezteagatiko salaketa ibilgailuaren gidariaren kontra jarri zela, ez titularraren kontra, nahiz eta elkarte bat agertzen zen titular gisa aseguruaren



polizaren ordainagirian, eta baita ere -ibilgailuaren matrikulatik abiatuta-Trafikoko Bulegoak berak zenbait erregistrotatik lortu zuen informazioan ere.

Sail horren iritziz, arau-hauste hori gertatu zen unean indarrean zegoen araudiak (martxoaren 21eko 632/1968 Dekretua, azaroaren 8ko 30/1995 Legeak -aseguru pribatuak arautu eta ikuskatzekoak- egindako idazketan) ibilgailuaren gidariari egozten zion erantzukizuna.

Haren ustez, urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuaren 22. artikulua aldatu zuen erantzukizun-egozte hori, ordutik aurrera erantzukizuna ibilgailuaren titularrari leporarazteko.

Hala ere, azken testu horrek, egia esan, ez du hura ordezkatu, baizik eta biak batera existitzen dira: alde batetik, martxoaren 21eko 632/1968 Dekretuak bere baitan hartzen du motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legea; eta, bestetik, urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuak bere baitan hartzen du motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Araudia, aurreko Araudiaren ordezkoa (aurreko araudi hori abenduaren 30eko 2.641/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

4. Bukatzeko, alkatetza horren erantzunik izan ez duen gai bat aipatu behar dugu berriro. Hain zuzen, zer-nolako ondorioak dituen herri horretako festak pribatu bihurtzeak.

Udalaren 1.221 zenbakiko Erabakiaren 8. arrazoibidean, Arartekoaren baieztapen hau ez dela egia azpimarratzen da: "las vecinas de Irun que lo desean no pueden participar en un acontecimiento que es patrimonio históricocultural de toda la población". Arrazoi honengatik: "pueden organizarse actos de Alarde con el modo de participación de se desee". Alegia, udalak berak gonbita egiten du, Foru Milizien oroitzapenetan, biztanleek nahi beste ikuskizun pribatu burutu ditzaten.

Alardeak antolatzeko ustezko askatasun-berdintasun horien kontra (formalak baino ez dira), ez dugu beste ezer esango. Bakar-bakarrik azpimarratuko dugu udal agintaritzaren berezko zereginak besteren esku uztea dela festak pribatu bihurtzea. Erakunde honen ikuspegitik, udalaren jarrera uzcurraren eta ospakizun txiki ugari egiteko proposamenaren ondorioz, bere balioa eta berezko izaera galtzen ari da orain arte herri horren historia-, kultura- eta festa-



erakusgarri nagusi izan den ospakizuna, eta, beraz, udalak ez du betetzen kulturazko ondarea gordetzeko duen eginkizuna.

Baina, gainera, festa pribatu bilakatuz, biztanle askoren bazterketa baimentzen ari da udala, eta jokaera hori benetan onartezina da, eskubideak bermatzearen ikuspegitik begiratuta. Herriko festek, funtsean, elkartzeko ekintza erakusten dute; ekintza horretan desagertu egiten dira urte osoan gizarte-harremanetan izaten diren desadostasun ideologikoak, ahalmen ekonomikoari dagozkion aldeak, gizarte mailazkoak. Horrela bada, Irunen eta Hondarribian gertatzen ari den festa-pribatizazioa kontrako zentzuan doa aurrera. Alardearen ospakizuna ekimen pribatuaren esku uztean, baimendu egiten da antolatzaileek biztanle batzuk baztertzea, eta horrela, berdintasun printzipioa hausten da.

Gure aurreko idazkian ohartarazi genuen legez, Alardea pribatu bihurtzean, gizabanakoen talde bati ahalmena ematen zaio begiko ez dituen herritar edo gizarte talde guztiei herriko festetan parte hartzea galarazteko. Egun, Irunen, emakumeak baztertzen dira, baina agian bihar-etzi beste pertsona batzuk baztertuko dituzte, beren jatorriagatik, ideologiagatik, e.a. Ate hori zabaltzea, duda barik, demokrazian bizi izateko oinarrizko baloreei zuzenean eraso egitea da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

17/2003 GOMENDIOA, ekainaren 10ekoa, Irungo udalari egina

Udal horrek berriro azter dezala 1.221 zenbakiko Erabakia, 2003ko maiatzaren 19koa, eta, hortaz, San Martzialeko udal Alardea iragar dezala datorren ekainaren 30erako, ospakizun hori antolatu nahi duenari ezinbesteko baldintza hau jarritz: pertsona guztien arteko berdintasun printzipioa errespetatu dezala, eta, bereziki, emakumeei beren herrikide diren gizonezkoen baldintza beretan ospakizunean parte hartzeko eskubidea onar diezaiela..